



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2014ko martxoaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

475/2013 Dekretua

21/2014 Dekretua

27/2014 Dekretua

31/2014 Dekretua

34/2014 Dekretua

40/2014 Dekretua

83/2014 Dekretua

87/2014 Dekretua

94/2014 Dekretua

476/2013 Dekretua

25/2014 Dekretua

30/2014 Dekretua

33/2014 Dekretua

38/2014 Dekretua

81/2014 Dekretua

85/2014 Dekretua

93/2014 Dekretua

96/2014 Dekretua



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

99/2014 Dekretua
108/2014 Dekretua

101/2014 Dekretua
111/2014 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA.- BASO LANDAKETAK, MUGAIDE DIREN LANDEKIN GORDE
BEHAR DIREN GUTXIENeko DISTANTZIAK. ARAUAK**

Baso multzoak landatzean, landa mugaideen titularrak mugarrietatik gorde behar dituzten dintantziei buruz bat ez datozenean, neurri egokirik hartu ezean zenbait gatazka (hala nola gizarte bakea haustean) sortu daitezkeela gauza frogatua delarik.

Baso landaketa horiek landa mugaideetan duten eragina, faktore aldakor askoren menpe dagoena (arboladi mota, landaketa markoa, landaketaren tratamendua, orientabidea, aldapa, lurgainaren ezaugarriak, etab.) modu askotarikoa izan daitekeelarik.

Gaur egungo Ordenaketa Juridikoak, Askatasun eta Harrera edo tratu berdintasunaren oinarriak besteak beste ezarriz, elkarbizitze demokratikoa ziurtatzea gauzarik garrantzitsuena bezala harturik, zeregin hori Botere Publikoei emana diela kontutan harturik.

Beren interesak jestionatzeko autonomia duten Udalak Administrazio Publiko bezala onartua daudela eta, Udal Errejimeneko Oinarriei buruzko 85/7 Legearen Hitzaurreak dioen legez, Udal Korporazioek gizaki bakoitzaren eta gizataldeen ekintzei buruz eskuhartzeko duten eskubideak baliatuz, legezketasun eta askatasun publikoaren printzipioak gordez, eta Udal Errejimenaren Oinarrizko Legearen (aurrerantzean UEOL) 2. eta 84. artikuluetan eta Udal Korporazioen Zerbitzuei buruzko Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotzen den justifikaturiko helburua edo interes publiko babestuei dagozkien neurri egokiak bideratu behar dituztela kontutan harturik.

Elkarbizitze egoki bat lortzeko, urriaren 19ko 1967/2661 Dekretuko Legeriak (Nekazaritza 1967ko azaroaren 4ko 264. zenbakia duen BOE) adierazia duen legez "Berlandatu behar diren landen titularren eskubideak eta landa mugaideenak bateragarri bihurtzea" hain garrantzitsua izanik, eta hau lortzeko, berlandaketak egin nahi dituzten jabeen askatasuna gordez, mugaideetan kalterik izan ez dadin, beharrezko mugak ezarriko dituzten agintarauak zehaztearen bidez egin behar dela kontutan harturik.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

1967/2661 Dekretuak berak, berlandaketa konkretu batetatik etor daitezkeen kalteen eragina mugatzeko garaietan kontutan hartu beharko diren aldaeren multzoa dela eta, kasu bakoitzean ezar daitezkeen arau orokorrean gain, kasuan kasuko landaketaren distantzia jartzea errazten duen prozedura martxan jartzera bultzatzen duela kontutan harturik.

Kode Zibilaren 591 artikulutik, 1967/2661 Sektoreko Dekretu honen I. artikuluari dagokionean, biok baso landaketen gorde behar dituzten distantzien arloan arau positibo bakarrak izanik, zalantzarik gabe, garbi dago gai hauek arautzeko, Udalek dutela eskumen berezia, eta gainera, Udal Errejimeneko Oinarriari buruzko 85/7 Legearen 5. eta 84. artikulua hala diotela kontutan harturik.

Berauen onespenerako, 85/7 UEOLaren 49 c) eta 22.2 d) artikulua aplikatuz, hasteko Udalbatzak onetsi behar duenez, ondoren jendaurreko informazioa eta interesatuentzako entzunaldia daudela, erreklamazio eta sujerentziak aurkezteko gutxienez 30 eguneko epea dutelarik, eta azkenik Udalbatzak, hala erabakiz gero, behin betiko erabaki behar duela kontutan harturik.

UdalbatzaK, hau erabakitzen du:

I.- Hasteko hurrengo Agintarau hauek onestea:

BASO LANDAKETEK, MUGAIDE DIREN LANDEKIN GORDE BEHAR DITUZTEN GUTXIENEN Distantzien Arauak

- 1.- Aplikazio eremua: Udal esparru osoari dagokio.
- 2.- Helburua: Askatasun publikoa, interes publikoaren defentsa gorde, titularraren eskubideak eta mugaidedun arteko mekanismo batzuek artikulatzea gorde behar dituzten distantziak ezarriaz.
- 3.- Betebehar bereziak: landa mugaideari inongo zorrik edo kargarik ez jartzea, ez itzalarekin, ez sustraiekin, ez lurgainaren kalitatea aldatuz, ez landareen nahiz abereen eraso edo sarrerekin, parasitodunak izan edo ez, ez eta baso multzoetatik etor daitezkeen antzeko eraginekin ere.
- 4.- Landaketa aurretik lizentzia eskatu beharra: baso landaketarako udal lizentzia eskatu behar da. Udal Administrazioak, lizentzia ematen duen unean, haien mugaide guztiekin gorde behar dituzten distantzia bereziak ezarriko ditu.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

5.- Banakako aginduak: aurretik egindako espediente egoki batean frogatuko balitz baso landaketa bategatik berarekin mugaide den landa batek karga edo zama batzuk dituela, Udal Administrazioak seihilabeteko epe barnean basolandaketa hori ken dadila agindu ahal izan du, karga hori desagertuko dela ziurtatuko duen distantzian berlandatu ahal izango duelarik, Nekazaritza Ministeritzako 2661/67 eta 5/89 Arau Foralaren arabera.

6.- Lizentziarako eskabidea: Baso landaketa bat egin behai duen titularrak, Udalari eskatu beharko dio berari dagokion lizentzia.

Eskabideari, birlandaketari buruzko egitaraua behitu beharko dio, egitarau horretan, gutxienez, hurrengo hauek adieraziko dituelarik: erabiliko dituen landare motak, landareen arteko distantzia, lurra prestatzeko lanak eta zer tratamendu mota eman nahi zaizkion basoari, landaketaren perimetrotik mugarri bakoitzera dauden distantziak, eta eskala egokian eginiko plano adierazgarriak.

7.- Aurkako espedientea: Udalak mugaide eta errentatzaileei bidaliko die eskabidea, hamabost eguneko epearen barruan, proposatzen den distantziarekin ados dauden edo ez azal dezaten, beren erantzuna, arrazoituz, eta beren iritzia defendatzeko egokiena iruditzen zaiena aipatuz. Ez balute espreski adierazitako haren aurka daudela, eskabidean jarritako gutxieneko distantziarekin konforme daudela ulertuko litzateke.

8.- Txosten teknikoak: Mugaideentzako entzunaldirako tramitea burutu ondoren, espedientea Udal perituen txostenaren menpean jarriko da, hauek proposamenen egokitasunari buruzko eritzia eman eta, lehenago azaldutakoaz gain, beren ustez bidezko dena proposatuko dutelarik.

9.- Lizentzi ematea: Jabe desberdinen finkekin muga egiten duten baso landaketak, jabeen artean adostasunik ez badago behintzat, eta toki horretan ordenantza edo usadiorik ez badago, muga amankomunetik gutxienezko distantzia hauetara egin beharko dira:

.- Baso landaketen artean: ondorengo tartekak utzi beharko dira mugetara:

- Titular desberdineko baso landaketen artean: 2 metro
- Baratza, zelai edo fruta arboletara:

.- 6 m. Euskalipus zuhaitzetatik.

.- 4 m. hostozabalen gainerako landaketetatik



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

.- 3 m. pinudietatik

Baserri eta etxebizitza eraikinen inguruan:

.- Eukaliptus eta konifera denean 100 metro tara. Bertako hostozabalak direnean 50 metro tara.

Herribide eta baserri bidea denean: Edozein landakuntza egiteko 2 metroko neurria errespetatu behar da, eta denborarekin zuhaitzen adarrak bidea oztopatzen badute, kentzea behartuta izango da.

Babes bereziko gunek, erantsitako planoetan argitzen dira, aipatutako hune hauetan baso landaketa intentsiboa ukatuko da. Baina erosioaren aurkarako bertako landarea landatu ahal izango da era honetara: 16 m²-etan 4 zuhaitz landare.

Dena dela, kaso bakoitzean eta eskaera bakoitza aztertu ondoren dagokion baldintzak exijituko dira.

Ez dira arautegi honek erasandakotzat hartuko bide eta ubide ertzetan lerrokadura soilik eratzten dituzten landaketak, ez eta haizeak moztekoak direnak edo apaingarri modura landatzen diren zuhaitz bakanak ere.

10.- Administrazioaren isiltasuna. Administrazioak, lizentzia eskatu eta bi hilabeteko epearen barruan, gehienez ere, bere erabakia eman beharko du.

Eskabidea egin eta hiru hilabete igarotzen badira Administrazioak erantzunik eman gabe, lizentzia eskatua izan zen arabera eman balitz bezala hartuko da.

11.- Lizentzien indar-galtzea. Lizentzia bat espreski edo administrazio isiltasunaz lortuz gero, urtebeterako balioa izango du, urtea pasa eta gero indargabetua geldituko delarik, eta horrela, landaketa egiteko lizentzia berria eskatu beharko delarik.

12.- Lizentziarik gabeko landaketa. Lizentziarik gabe edo bertan jarritako gutxieneko distantziak gordetzen ez dituzten landaketa guztiek zigorra izango dute, eta kasua balitz, gaitz eta kalteen diru-ordaina ematera ere behartuko dira, landaketaren arduradunak, okerreko berlandaketa kendu beharko duelarik.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

13.- Lege hausteak. Agintarau hauetan esandakoaren edozein hausketa, eta bereziki, baimendutako distantzian baino laburragoan egindako landaketei buruzko arauen hausketei, zigorra jarri ahali zango zaie.

14.- Zigorrak. Legea hausten dutenei aplikatu ahal izango zien zigor-errejimena apirilaren 18ko 1986/781 Legegintzazko Errege-Dekretuaren 59. artikulua eman da, gaur egun Udal Errejimenerako ezarria.

Agintarau hauek hausketei, Zigor edo Penal Kodean hoben edo faltei ezarritako preskripzio epeak aplikatuko zaizkie, kasuan kasuko legeak ezar dezkaeenari kalterik egin gabe.

Agintarau hauen hausketari jarritako diruzigorra ordain erazteko, borondatez ordaintzen ez denean, behartasunezko administrazio prozedura erabiliko da.

AZKEN ERABAKIAK

Lehena. Agintarau hauen onespena hurrengo prozedurari lotuko zaio:

a.- Lehenengo Udalbatzak onetsiko du.

b.- Jendaurreko informazio eta interesatuentzako entzunaldia, gutxienezko 30 egunetako epean zehar, erreklamazio eta sujerentziak aurkezteko.

c.- Epearen barruan aurkezteko erreklamazio eta sujerentziak ez bada, behin betiko onartua geratuko da.

Bigarrena. Behin betiko onartutakoan sei egunen barruan, haren kopia Estatuaren eta Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioei budaliko zaizkie.

Hirugarrena. Erregelamendu hau aldatzeko, bere onespenerako gordetako tramite berberak gorde beharko dira.

Laugarrena. Erabaki honen kopiak, haren agintarauekin batera, hala kompetentzia duten Administrazioei, nola Foru Diputazioaren sail egokiari bidaltzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

LAUGARRENA.- OIHANPISTA ETA UDALARI DAGOZKION BIDEEN ERABILPEN BEREZIRAKO OINARRIEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Korporazio Lokalen ondasunak erostea, administratzea eta erabiltzea Erregimen Lokaleko Legeak eta beru erregulatzen duten Erregelamenduek, Koporazio Lokaletako Zerbitzuen Erregelamenduak eta Ondasunen Erregelamenduak bereziki, arautzen dute. Aipatu legeriak aurrikusten du, halaber, Korporazio Lokalek beren eskurantzak erabiliz arautu ahal izango dituztela Bandoak, Ordenantzak, Erregelamenduak, eta abarren bitartez kasu bakoitzari dagozkion zehazpenak.

Jabari publikoko ondasunen erabilera, amankomuna, orokorra, pribatiboa, anormala, etabar izan daitekeena, horrezaz gainera erabilera amankomun berezia aurrikusten du, erabileraren intentsitatea eta lizentziari lotua egon ahal izatea direlarik haren ezaugarri nagusiak.

Erabilera amankomuneko jabari publikoko ondasun bat erabilera baldintza onetan mantentzeak, hala nola mendi pistak eta bideak oro har, ahalegin handia eskatzen du, bai administrazioaren aldetik bai partikular erabiltzaile orokorren aldetik.

Oihanpistetan eragindako kalteak direla eta, kamio asko normal erabili ezinean geratu dira, eta horiek berritzu eta hobetzeari ekin zaio, gehienak erabiltzeko baldintza onetan gelditu direlarik.

Erabilera intentsibo eta desegokiak edo neurritz gaineakoak berehala hondatzen du zorua, ibilgailu normalek erabil dezaten galeraziz.

Egur ateratze lanak, batipat, pisten erabilera intentsiboa behar du eta gero bideena errepide nagusira heldu arte, beraietan kalte handiak eginez, normalean areagotu egiten direnak oinarritzko erabilera arauak ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik: gehiegizko zamak, ibilgailu desegokiak, euriteka, eta abar.

Egindako inbertsioek eta gerora egingo direnek behar den eta bestalde erabiltzaile publiko orokorrek desiratzen duen errentagarritasuna eduki dezaten, behar-beharrezkoa da erabilera berezia erregulatzea, bideen kontserbazioa eta titulartasun publikoko bide horietatik udalerriko puntu desberdinetara heltzeko egoera ona garantizatzeke.

Ordenantza honekin era espezifiko erregulatu nahi da lizentzia eskuratzeko derrigortasuna mendi pista eta bideen erabilera berezira, baita berme fidantza bat gordailatu beharra.

OIHANPISTA ETA UDALARI DAGOZKION BIDEEN ERABILPEN BEREZIRAKO OINARRIEN ORDENANTZA ERREGULATZAILEA



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

1. Art.- Ordenantzaren helburua Udal titlartasuneko pista eta bideen erabilera berezia erregulatzea da, jabari publikoko ondasunekin zerikusia duten alorretan Udalari emandako eskumenak erabiliz.
2. Art.- Udal titulartasuneko edozein mota eta mailatako pista eta bideak erabilera orokorreko ondasun publikoak dira.
3. Art.- Udalari dagokio, edozein kasutan, erabilera publikoko ondasunen erabilera desberdinak planifikatu eta erregulatzea.
4. Art.- Ordenantza honen eraginetarako erabilera berezikotzat honako hau hartzen da: tonelada haundiko kamioiak, traktore haundiak, belar ibilgailuak, katedun gurpileko ibilgailuak eta antzekoak erabiliz materialeak garraiatzea, baita haien ibiltzea ere.

LIZENTZIA ESKURATZEKO DERRIGORTASUNA

5. Art.- Derrigorrezkoa da lizentzia eskuratzea, aurreko artikuluan ikusitako iharduerari ekin aurretik.
6. Art.- Debekaturik daude erabilera kasu guztietarako, hogeitasei tona baino gehiagoko gehienezko pisua duten belar ibilgailu, katedun gurpilezko ibilgailu eta ibilgailu orokorrekin egin beharreko lanak; baita zoruaren gaineko arrastre zuzenekoak edota ongi definitu gabeko erroadura banda dutenak. Salbuetsirik daude ezinbesteko kasuetan iharduera espezifikoko eta puntualak, horretarako behar bezalako baimen espresua izango dutenak.
7. Art.- Lizentzia eskatzeko Alkatetzari zuzendutako idazkia bidaliko da, argi eta garbi adieraziz ibilbide nagusia eta hala badagokio, erabiltzeko beste aukerak, lanen zenbatekoa eta neurriak, ustez behar den denbora eta, oro har, beharrezko informaziorako ezinbestekotzat jotzen diren datu guztiak, promotoreak edota behar bezala identifikaturiko legezko ordezkariak sinaturik.
8. Art.- Eskatutako edo eska litezkeen baldintzak betez eskaria aurkeztuta, tramitean onartuta eta, kasu balitz, gaiaz ulertzen duen Informazio Batzordeak edota bestela udal enplegatuek entzunda lizentziari baiezkoa edo ezezkoa emango zaio hura aurkeztu eta gehienez ere hilabeteko epean.
9. Art.- Lizentziarekin batera erabilerazko baldintza orokorrak nahiz kasuaren partikularrak adieraziko dira, beti ere derrigorrez bete beharko direnak. Lizentzia



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

hori hirugarrenen kalterik gabe ulertuko da eta kasu bakoitzean beharrezko baimenak eskuratzear salbuetsi gabe.

10. Art.- Lizentziaren eskatzaileak eta aginduzko izaera-rekin berme fidantza bat gordailatu beharko du, lanak egiterakoan sor litezkeen kalteengatik erantzuteko.

FIDANTZA GORDAILATZEA

11. Art.- Egun lizentziari atxikirik tipifikatuta dagoen iharduera nagusia egur ateratzea denez gero, lizentzia eskariari erantsi beharko zaio BAIZER, Oihan eta Izadiaren Kontserbaziorako Zerbitzuak egindako baimen eta neurketa orria, atera beharreko egurraren gutxi gora beherako kopurua gaineratuz.

12. Art.- Ezarri beharreko gutxieneko fidantza, HIRU MILA (3.000,00) €-takoa izango da.

Eta gainera, oinarritzko kalkulu gisa, finkatzen da:

Bidearen Luzera Fiantza

Km 1eraino 3,00 € bidearen metro lineal bakoitzeko.

Km 1 eta 2 bitart. 4,00 € bidearen metro lineal bakoitzeko,

Km 2 baino geh. 5,00 € bidearen metro lineal bakoitzeko.

13. Art.- Garraiatu beharreko materialea beste mota batekoa balitz, harrobiko materialea, buztinak, mineraleak, etabar, oinarri unitarioa egurrarentzat zehaztu den kopuruaren arabera kalkulatu da.

14. Art.- Behin fidantzaren kopurua zehazturik, eskudiruan gordailatuko da Udaletxeko Kutxan iharduerari ekin aurretik, Fidantza hori, halaber, banketxeko abal finkoaren bitartez utzi daiteke, Udalaren alde zenbateko osoagatik eta Korporazioa amaitu arteko indarraldi espresuarekin.

FIDANTZAREN ITZULKETA

15. Art.- Utzitako fidantzaren itzulketa edo, kasu balitz, banketxeko abalaren kitapena eskatzeko idazki bat igorri beharko zaio Alkatetzari, lanei amaiera eman zaiela adieraziz, baita egingo liratekeen kalteak erabat konpondu direla.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

16. Art.- Aurreko artikuluan aipatutako idazkia aurkeztu eta hilabeteko epean, Udal enplegatuek edo Informazio Batzordeak egindako txostena ikusirik, Alkateak fidantzaren itzulketa erabakiko du, hala badagokio, edota lizentziaren titularrari egin behar dituen konponketen berri emango zaio. Jakinerazpena egin zaionetik hilabetera konponketak egin ez balitu Udalak egingo ditu promotorearen kontura, utzitako fidantzaren zenbatekotik beharrezko kopurua kenduaz.

17. Art.- Baldin eta gordailaturiko fidantzak zuzenean edo zeharka eragindako kalteak konpontzeko gastuak estaliko ez balitu, Udalak erantzunkizun deribatua eskatuko luke, lizentziaren titularraren aurka legezko neurriak hartuz.

AZKEN ERABAKIAK

Lehena. Agintarau hauen onespena hurrengo prozedurari lotuko zaio:

a.- Lehenengo Udalbatzak onetsiko du.

b.- Jendaurreko informazio eta interesatuentzako entzunaldia, gutxienezko 30 egunetako epean zehar, erreklamazio eta sujerentziak aurkezteko.

c.- Epearen barruan aurkezteko erreklamazio eta sujerentziak ez bada, behin betiko onartua geratuko da.

Bigarrena. Behin betiko onartutakoan sei egunen barruan, haren kopia Estatuaren eta Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioei budaliko zaizkie.

Hirugarrena. Erregelamendu hau aldatzeko, bere onespenerako gordetako tramite berberak gorde beharko dira.

Laugarrena. Erabaki honen kopiak, haren agintarauekin batera, hala kompetentzia duten Administrazioei, nola Foru Diputazioaren sail egokiari bidaltzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

BOSTGARRENA.- LIZARTZAKO GIZARTE GUNEKO TABERNA ETA JANGELA
ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO-
ADMINISTRATIBOA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Lizartzako Gizarte-Guneko Jubilatuen Taberna, Jangela-Erabilera Anitzeko Lokalaren Kontzesio Administratiboaren Lehiaketako baldintza erregulatzailen pleguari hasierako onarpena ematea.

Baldintza Pleguak zortzi egun naturaletan jendearen informazioarako agerian jarrita edukitzea, interesatuek hauek aztertu eta egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epealdian alegaziorik aurkezten ez bada, baldintza pleguak behin betiko onartuzat jotzea.

Aldi berean, lizitazioa iragartzea, hau atzeratu egingo delarik baldin eta Baldintza Pleguaren aurka alegazioak aurkezten badira.

LIZARTZAKO GIZARTE-GUNeko JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILIEN PLEGUA

1. art.- Kontzesioaren xedea.

Lizartzako Udala gizarte-gunearen instalazioen, eta udal pilotalekuaren jabea da, eta lehiaketa publikoa irekitzen du kontzesio administratiboa emateko asmoz, bertako taberna eta jangela-erabilpen anitzeko gelaren erabilera eta ondorioz ustiapena baimentzeko kontzesionatzaileari.

2. art.- Kontzesionatzailearen betebeharrak.

Gizarte-gunearen eta jangela-erabilpen anitzeko gelako eta udal pilotalekuaren ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Jubilatuentzako taberna eta jangelaren zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Gizarte-gunearen gainontzeko instalazioen eta mobiliarioaren garbiketak, zehazki, bainu jeriatrikoa, egon gela, komunak, biltegia eta aldagelak.
- c) Mahaira eta egon-gelara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituzten jubilatuei laguntza eman.
- d) Jangelaren uztea otorduko orduetatik kanpo iharduera anitzen erabilpenerako.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

e) Gizarte-guneko bainu jeriatrikoko eta egon gelako giltzen ardura.

f) Udal frontoiaren erabilerari dagokionez, ondorengo betebeharrak dakar:

- .- Egunero frontoia ireki eta ixtea, astelehentik igandera, goizeko 09:00etatik 22:00etara.
- .- Frontoiaren garbitasuna: kantxa, eskailerak e.a.
- .- Argi indarraren fitxen kargu egitea, eta eskatzaileen artean, banatzea.
- .- Dutexetako ateen irekiera eta garbitasun errepassoa egitea.
- .- Frontoiaren erabiletik sortu daitezkeen bestelako lanak.

3. art.- Behin behineko adjudikazioa egiten denetik urte bateko kontzesioko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu denuntziatzen.

4. art.- Esleidunak, lehen urteari dagokion ustiapenaren ondorioz, Lizartzako udalari BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00) €- hileroko kanona ordainduko dio, B.E.Z.a barne delarik. Diru kopuru hau urtero errebisatuko da, urteko K.P.I. aplikatuz.

Esleidunak, udal pilotalekuan burutu behar dituen betebeharrengatik, BERREGUN ETA BERROGEITA HAMAR (250,00,-) € jasoko ditu; kopuru hori, Udalari ordaindu behar zaion Kanon-arekin konpentsatuko da.

5. art.- Ordutegia: Azarotik Apirila bitarte: goizeko 10etatik gaueko 10k arte; Maiatzatik Urria bitarte, goizeko 10etatik gaueko 11k arte gutxienez, publikoari irekita egongo da, Eusko Jaurlaritzatik onartzen duen legediaren arabera ordutegi hau zabaldu daitekalarik. Asteguneko egun batean, hau da, asteartea, jai egitea izango da. Urrian, astearte arratsaldea eta asteazken goize, eguerdia bitarte, jai egitea izango da. Oporrak abuztuko hiru astetan egin ahal izango dira.

6. art.- Esleidunak berak zuzenean bete beharko ditu kontzesio honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langileriarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleidunaren kontura izango bait da.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Esleidunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.

Zilegi izango da titularra ordezkatea baldin oporreatatik edo beste arrazoi batzuegatik, baina garaiz jakinarazi beharko zaio hori Udalari.

7. art.- Bi prezio tarifa aplikatuko dira, eta denbora guztian ikusgai azalduko dira.

- a) Bata, Lizartzako 65 urtetik gorakoei aplikatuko zaie tarifa murriztua, eta honen prezioak Udala eta esleidunaren artean adostuko dira kontzesioa eman ondoren.
- b) Bestea, gainontzeko publikoari aplikatuko zaio, eta Lizartzako beste tabernetako antzekoak izango dira.

8. art.- Ondorengo gastuak esleidunaren kontura izango dira:

- Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna, Jangela-Erabilpen Anitzeko Gelako zerbitzurako ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestiko eta beste batzuen mantenimendu eta konponketa.
- Garbitasun, argindar, ura, gasa, zaborrak eta estolderi gastuak.
- Bi urtetik behin, taberna eta jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren pintaketa.

9. art.- Esleiduna behartuta egongo da kontzesioak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

10. art.- Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren funtzionamendua, barruko ordena, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokal eta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak egin ahal izango ditu, eta esleidunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldian idatziz oharterazioko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

behartuko litzateke, eta bigarren aldian kontratua hautsiko litzateke, esleidunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokelarik salbuetsiko sortu dituen erantzunkizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gela behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleidunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnizazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzunkizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.

11. art.- Esleidunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren baimenik gabe.

12. art.- Esleidunak ezingo ditu obrak egin Udalaren baimenik gabe.

13. art.- Esleiduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabego edo menpean egon.


14. art.- Udala behartuta dago lokala, bere instalazio eta haltzariak aseguratuzera egokiak diren kopuruetan.

15. art.- Udalak kontratua salatu eta indarririk gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska liezaioke esleidunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomi arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien galkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

16. art.- Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleiduna behartuta geratuko da alde egiteko erabili dituen lokalak eta hauei atxekitutako ondasunak utsik eta aske uztera, udala ahalmentuta egongo delarik usketa erabaki eta egiteko.

Kontratoaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleidunak errenunziatzen duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 17. art.-** Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurrikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen erreglamenduak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da kontzesioa.
- 18. art.-** Plegu honetan aurrikusten den lehiaketaren bitartez gauzatuko da adierazi den zerbitzu horren eleispena, eta horretan aurrikusi gabe dagoen oroako udaletako kontratazio erreglamendurako 40. artikulua eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenek aginduko dute.
- 19. art.-** Baldintza plegua eta beste aurrekinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.
- 20. art.-** Lizitazioak puntu hauek hartuko ditu kontutan:
- a) Lizartzan erroldaturik egotea baloratu egingo da, herrikoari lehentasuna emanez.
 - b) Euskaraz jakitea.
 - c) Langabezian egotea baloratuko da.
 - d) Famili kargak kontutan izango dira.
 - e) Esperientzia profesionala antzeko lanpostuan izatea baloratuko da.
- 21. art.-** Behin behineko garantiarik ez dute aurkezteko eslekidunak.
- 22. art.-** Behin betiko berma mila eta berrehun (600,00) €-takoa izango da. Berma hori udaleko kontratazio erreglamenduak aurrikusten duen bezala eratu beharko du eslekidunak, lagapenaren oharterazpena egin eta hurrengo hamar egunetako epean udaleko kontuhartzaitzara eraman beharko duelarik berma eratu duela egiaztatzeko agiria. Berma horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako obligazioak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erreglamenduko arauen eta horiek alda zitzaketan ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

23. art.- Proposamenak jarrain azaltzen den eredia bete beharko dute:

.....jaun/anderea, bizi dena, N.A. zenbakia
....., ahalmen juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, eta jakin duenez
Lizartzako Udalak deialdia egin duela Gizarte-gunearen taberna eta jatetxeko zerbitzua
erabili eta ustiatzeko lagapen administratiboari dagokion esleipena ematearren,
horretarako onartu den baldintza plegua ere ezaguturik, aipatu lehiaketan parte hartu
nahi du, eta erabilpen eta ustiaketa hori aipatutako baldintzen arabera egitera
behartzen du bere burua, hortik eta zuzenean edo subsidiarioki aplikatu daitezkeen
indarrean dauden arautetaik sortzen diren betebeharrak eta erantzunkizun guztiak
onarturik.

Lekua, data eta sinadura.

24. art.- Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 20 laneguneko epean aurkeztuko dituzte
bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak
aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau
Udal Plenoak onetsiko du.

SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA arautzeko udal-ordenantza onartzea
Udalaren interesekoa dela aintzat hartuta;

Aztertuta Idazkaritzak, 2014ko otsailaren 12an, legedi aplikagarriari eta
aipatutako ordenantza onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz idatzitako
txostena;

Aztertuta, orobat, Gizarte Zerbitzuetako udal-zerbitzuek DIRU LAGUNTZEN
PLAN ESTRATEGIKOA arautzeko udal-ordenantzarako egindako proiektua (alkateak
2014ko otsailaren 14an eskatu eta Udal honetan 2014ko otsailaren 24an jaso);

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen
22.2.d) eta 49. artikuluen arabera, Udalbatzak bilera ohizkoa egin du 2014ko
otsailaren; bilera horretara bertaratutako kideek gaia aztertu eta bozkatu ondoren aho
batez,

ERABAKI DA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

LEHENA. DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA arautzen duen udal-ordenantzari hasierako onarpena ematea:

DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2014

ATARIKOA

Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru Laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru Laguntzen Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek modu zuzenean du eragina diru laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia maila-ren igoeran.

Zentzu horretan, diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du, edozein motako gainjartzea ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko Diru laguntzei buruzko Plan Estrategikoa egitea aurreikusten du araudiak. Plan hori hainbat urtetarako izan beharko da, diru laguntzak sortu aurretik egin beharko da, eta beharrezko izan daitezkeen azterketak egin beharko zaizkio urtero.

Horregatik, Udal honek Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu duo Planak ondorengo artikulua ditu:

I. KAPITULUA



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

XEDAPEN OROKORRAK

I. ARTIKULUA.

Lizartzako Udalak 2014-2015 aldian emango dituen diru laguntzak Diru Laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

2. ARTIKULUA.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

3. ARTIKULUA.

Diru laguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

4. ARTIKULUA.

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

II. KAPITULUA

ONURADUNAK

5. ARTIKULUA.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz hitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsoneri, elkartei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jar-duerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

6. ARTIKULUA.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publikitatea, lehia-kortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

- Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzerakoan eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.
- Diru laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskrimina-ziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.
- Eta, berariaz, Plan Estrategikoaren egokitasuna uneoro egiaztatzea. Hau da:
 - Plana termino sozialetan justifikatzea.
 - Planak kontuan hartzen dituen herritarren beharrak.
 - Finantza gaitasuna.
 - Arlo horretako udal eskumena azaltzea.

7. ARTIKULUA.

Alkatetzak, laguntzak edo diru laguntzak emateko organo eskudunak, kudeaketa ekonomikoa egiteko funtzioa du, eta beraz, Diru Laguntzen Plan Estrategikoa exekutatzekoa.

Beraz,

- Diru laguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.
- Diru laguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Lizartzako Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- Eta, azkenik, diru laguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

III. KAPITULUA

PLANAREN EDUKIA

8. ARTIKULUA.

Plan honetan 2014rako aurreikusitako laguntzek eta diru laguntzek honako hauek jasotzen dituzte bakoitzari dagokion eranskinean:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Emakida mota aplikagarria.
- Hartzaileak.
- Diru kopurua.

9. ARTIKULUA.

Plan honek diru laguntzak ematen dituzten udal departa-mendu beste eranskin ditu.

10. ARTIKULUA.

Aurrekontuan aurreikusitako diru laguntzak ondorengo iriz-pideen arabera zerrendatuta agertzen dira eranskin bakoitzean:

- Diru laguntza ematen duen saila. Irizpide horrekin departamentua zehazten da (eranskinaren arabera).
- Helburua. Irizpide horrekin diru laguntza zein helbururako erabiliko den zehazten da, gero helburu hori ebaluatu ahal izateko.
- Kudeaketa mota. Irizpide horrekin diru laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakorta-sun askea, lankidetzaz hitzarmena, programa).
- Zenbatekoa. Diru laguntza bakoitzerako aurreikusitako kontsignazioa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

IV. KAPITULUA

DIRU LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

10. ARTIKULUA.

Udalak, deialdi publiko bidez edo lankidetzaz hitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsonari, elkartei edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarraierak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

11. ARTIKULUA.

LIZARTZAKO Udalak diru laguntzak emango ditu urtero, hainbat udal diru laguntza lerrotan, ondorengo eskumen arloetan: Gizarte gaiak, euskara, kultura, hezkuntza, enplegua, kirolak.

V. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA.
EMAITZEN AZTERKETA

12. ARTIKULUA.

Diru laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru laguntzak ematen dituzten departamenduek txosten arrazoitua eskatuko diete diru laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean egindako ekintza kopurua eta diru laguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

13. ARTIKULUA.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Diru laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru laguntzaren zenbatekoa.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- Diru laguntzarekin egindako ekintza zehatzak.
- Diruz lagundutako ekintzak zenbat herritarrengan izan duen eragina.
- Diru laguntza ematen duen departamenduaren balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egoki-tasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidez kotasunari buruz.

VI. KAPITULUA

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN KONTROLA

14. ARTIKULUA.

Ogasun batzordeburuak kontrolatuko du plan hau betetzen dela berau indarrean dagoen bitartean.

Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Ogasun batzordeburuak planaren exekuzioa ebaluatzeko txostena aurkeztuko du batzorde horretan.


15. ARTIKULUA.

Planaren indarraldia amaituta, eta berria egin aurretik, Ogasun batzordeburuak txostena aurkeztu beharko du Ogasun batzordean. Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru Laguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Aipatutako Plan Estrategikoaren aplikazioak eragindako emaitzen kontrola eta ebaluazioa udal kontuhartzaileak egingo du.

Udal-ordenantza hori jendaurrean jarri eta interesdunei jakinaraztea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta hogeita hamar egunez Udaleko iragarki-oholean erakutsaraziz, egoki irizten dionak gero Udaltzarak aztertu beharreko erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzan. Aipatutako epean inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, onartutzat joko da behin betiko, Udaltzarak berriaz erabakia emateko beharrik gabe.

Ahalmena ematea alkate-lehendakariari gai honi lotutako dokumentu oro izenpetzeko.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

**ZAZPIGARRENA.- „KASKARDI“ HARROBIAREN ONTZIA LURREZ BETETZEKO
EREMU GISA ERABILTZEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA.
PROZEDURA NEGOZIATUA**

BALDINTZA JURIDIKO ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, LIZARTZAKO AXURDARIO MENDIAREN OINETAN DAGOEN GI-2135 FORU ERREPIDEAREN ALBOKO HARROBIAREN ONTZIA LURREZ BETETZEKO EREMU GISA ERABILTZEKO ADMINISTRAZIO EMAKIDA ARAUTUKO DUENA, EREMU HORI INGURUMENAREN ETA PAISAIAREN ALDETIK BERRESKURATZEKO

1. art.- Agiriaren xedea

Baldintzen agiri honen helburua honako jarduera hauek gauzatzea xede duen administrazio-emakidaren esleipen-baldintzak arautzea da: GI-2135 errepidearen alboan eta Lizartzako Axurdario mendiaren oinean dagoen harrobi zaharraren ontzia indusketako lurrez betetzeko lana ustiatzea eta hala erabiltzea, aipatutako helburua duten egungo instalazioak erabiltzea, harrobi horren eremua ingurumen eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko eta integratzeko obrak aurrera eramatea –betetze-lanak horren zati dira– eta egungo instalazioak modu hautakorrean desegitea, kentzea eta eraistea.

2. art.- Kontratuaren xedea

Obra emateko kontratu honen helburua harrobia ingurumen aldetik berreskuratzea da, honako jarduera hauek gauzatzearen emaitza gisa: harrobiaren ontziaren eremua indusketako lurrez betetzeko erabiltzea aldi baterako, horretarako ingurumen eta paisaiaren aldetik gauzatu beharko diren egokitzapen-lanak, bai eta egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegin, kendu eta eraistea ere. Berreskuratze-lana baldintzen agiri honetan ezarritakoari eta dagokion esleipen-akordioan Lizartzako Udalak ezarriko dituen baldintzei eta INJELAN SL-k idatzitako Axurdario Harrobiaren Ingurumen berreskuratzerako eta paisaia integraziorako aurreproiektuari jarraiki egingo da.

3. artikulua.- Arau erregulatzaileak

1. Honako hauek arautuko dute kontratua:

- Agiri honetako klausulek.

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duena.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, zeinaren bidez Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen baita, SPKLTBri kontrajartzen ez bazaio.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 1955eko ekainaren 15eko Dekretuak onartutako Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.

2.- Honako hauek arautuko dute obren eta instalazioen gauzatzea:

INJELAN SL-k idatzitako Axurdario Harrobiaren Ingurumen Berrezkuratzerako eta Paisaia Integraziorako Aurreproiektuak garatuko duen Ingurumen berrezkuratzerako eta paisaia integraziorako Egikaritza Proiektuak, dagokion unean emakidaren esleipedunak arukeztu beharko duena eta Udal honek onespena eman beharko diona. Egikaritza proiektu horrek zehaztu beharko ditu: Harrobi ontzia Lurrez betetzeko eremu gisa ustiapenarako beharrezkoak diren aurretiazko obrak, lurrez betetzeko eremu honen geometria eta honen gainazal tratamendua, eta Gauzatze-proiektuak betetze-lanaren ustiapenari eta horrekin lotutako obrei (euste-obrak, drainatzea, eta abar) buruzko zehaztapenak ere aztertuko ditu, eta plegu honek barne hartutako nahiz kontratua esleitzeko orduan Udalak ezarri ahal izango dituen oinarrizko irizpideak garatuko ditu.

3.- Ontzia lurrez betetzeko lanaren aldi baterako ustiapena aipatutako proiektuak izan beharko duen berariazko baldintzen agiriak arautuko du. Agiri hori udalak onartu beharko du.

4. art.- Esleitzeko modua

Baldintzen agiri honen xede den emakida lehiaketa publiko bidez egingo da, prozedura negoziatuaren bitartez.

5. art.- Harreman mota

1.- Lehiaketaren esleipendunaren eta Udalaren arteko harremana administrazio-emakidari dagokiona izango da, eta barne hartuko ditu, alde batetik, ontzia lurrez betetzeko lanak aldi baterako ustiatzeko eta harrobia ingurumenaren aldetik



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

berreskuratzeko obrak, eta, bestetik, egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraistekoak. Era horretan, ezin izango dira barne hartu obraren gauzatzeari dagozkion efektu juridikoak, ontzia indusketako lurrez betetzeko lanen ustiapenarekin lotutakoak gorabehera.

- 2.- Udalak ez du aipatutako betetze-lanaren finantzazioan parte hartuko, ez eta harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko egin beharreko obra eta jarduketetan edo egun dauden instalazioak modu hautakorrean desegin, kendu eta eraistekoetan ere. Halaber, ez dio gutxieneko bilketa edo errendimendurik berrmatuko emakidadunari, eta inola ere, ez ditu abalatu ustiapena finantzatze aldera esleipendunak hitzartu ditzakeen jesapenak edo kreditu-eragiketak.

6. art.- Administrazio-emakidaren indarraldia

- 1.- Emakida, lau urteko gehienezko eperako eman ahalko da, baimenak eta lanak egikaritzeko beharrezkoak diren eskuesteak lortutako momentutik aurrera zenbatzen hasiko direnak.

Aipatutako baimenak lortzeko epea urtebetekoa izango da, udalaren aurrean Egikaritza Proiektua eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lanak gauzatzeko epeak, Egikaritza Proiektuak jasoko duenaren arabera luzatu ahalko dira, alderdi honek bi aldean adostasuna beharko du, behar adina malgutasunaz baliatuz.

Era berean, eta gauzatzeko-proiektuaren ondoriozko guztizko betetze-bolumena oinarri hartuta, aurreko epea egokitzen jo ahalko da, bertan aurreikusitako urteko m³-en arabera, betiere.

- 2.- Edozein kausa tartean dela emakida amaitzen denean, egindako obrak, instalazioak eta zerbitzuak Udalari itzuliko zaizkio oso-osorik, ondo zainduta eta kargarik eta zamarik gabe. Indarraldia amaitu ostean, emandako eskubide guztiak iraungiko dira.

7. art.- Kanona

Esleipendunak ordaindu beharreko kanona emakida jasoko duen lizitazio onuragarriena zehazten duen ebazpenak ezarriko du behin betiko, eta eskainitako obrak gauzatzeko lizitazio horren aurrekontuarekin bat etorriko da. Emakidaren erreferentziak, hortaz, gauzatu diren obren sailak eta euren neurketa dira, Udalak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

onartu beharreko gauzatze-proiektuak ezarritako moduan. Eta berdin mantendu beharko dira, nahiz eta obraren kostu unitarioak denboran zehar aldatu.

Edonola ere, bi aldeek hala adostuz gero, Udalak eta emakidadunak sailak eta euren neurketa berriro zehaztu ahal izango dituzte obra egin bitartean, baldin eta gauzatuko den obraren ondoriozko azterketa ekonomikoa azterketa kontratatuaren berdina bada, prezio eguneratuan.

Kanon honen ordainketa empresa esleipedunak ekaintzen dituen zerbitzu edo lanen truke ordezkatu ahalko da, bere prestazioen arloan..

8. art.- Emakidadunaren betebeharrak

Emakidadunak honako betebeharrak ditu:

- 1.- Obraren behin betiko bermea ematea, 32.566,56 €-koa, Lizartzan Axurdario Harrobiaren Ingurumena berreskuratzeko eta paisaia integrazioarako aurreproiektuak jasotzen dituen obraren egikaritzarako lizitazio oinarritzko aurrekontuaren %10ri dagokiona.

Bermea eskudirutan edo abal moduan eman ahal izango da, eta hura eratzeko epea hamabost egun baliodun izango dira, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

- 2.- Lizartzan Axurdario Harrobiaren Ingurumena berreskuratzeko eta paisaia integrazioarako aurreproiektuaren gastuak ordaintzea.

- 3.- Beharrezko azterketak eta proiektuak, azterketa geoteknikoa barne, egitea eta beren idazketa ordaintzea. Horiek guztiak oinarri gisa hartuko dira GI-2135 foru-errepidearen alboan dagoen harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko eta instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraisteko organo eskudunen aldetik beharrezko baimenak eskuratzeko espedienteak izapidetzeko.

GI-2135 foru-errepidearen alboan dagoen harrobia ingurumenaren aldetik berreskuratzeko lanak gauzatzea, organo eskudunen baimen eta lizentziak eta indarreko ingurumen, segurtasun eta osasuneko araudia oinarri hartuta.

- 4.- Betetze, euste, drainatze eta gainerako lanen eta Udalak onartuko duen amaierako eremua egokitzeko obraren gaineko erantzukizuna hartzea. Obrak ezarritako epean



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

eta baldintzei jarraiki egin beharko dira, eta baimendutako aldaketak baino ezingo dira egin.

- 5.- Lanak behar bezala egitea, horren erantzule izanik; hala, bere giza baliabideak eta bitarteko materialak erabiliko ditu horiek zaintzeko, lanetan bertan jarritako arduradunaren zuzendaritzapean. Lanetako sarbidea, lan eremuetako zirkulazioaren erregulazioa eta arriskutsuak izan daitezkeen gunek, eremu horretan zein inguruan, adierazteko beharrezko seinaleak ipini beharko ditu; halaber, lanen izaeragatik pertsonen eta ondasunen segurtasunerako behar diren neurri guztiak ere hartu beharko ditu.
- 6.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa hautsiz gero, egindako lan ororen erantzule izango da kontratista, bai eta bere ardurapeko lanak gauzatzearen eta lurrez betetzeko zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz sortzen direnena ere.
- 7.- Obrei ekin aurretik, kontratistak aseguru-poliza bat izenpetu beharko du. Poliza horretan jasoko da kontratazio honetan, emakidadunak zuzeneko edo zeharkako erantzukizunetik salbuesten duela Udala, horien jatorriak pertsoneri eta ondasunei eragindako kalteak eta obren gauzatzea edo ontzia lurrez betetzeko lanaren ustiapena diren kasuetan. Hala, kontratua gauzatzearen ondoriozko kalte-galera guztien ordaina eman beharko die hirugarrenei.
- 8.- Emakidadunak, edozein unetan, Udalak obren gauzatzearen eta zerbitzuaren ustiapenaren inguruko ikuskapen teknikoa eta ekonomikoa egitea eta zuzeneko kontrola izatea ahalbidetu beharko du, obrak eta betetze-lanaren kudeaketa behar bezala gauzatzen direla bermatze aldera.

Era berean, barneko linea eta zerbitzuak zaintzeaz eta konpontzeaz arduratzen direnei instalazioetara sartzeko aukera emango die, dela aipatu lanak egiteko dela beharrezko berritzeak edo handitzeak egiteko.
- 9.- Udalari itzuli beharko zaizkion emakidaren xede diren ondasunak ez besterentzea, ez eta kargatzea ere, Udalak horretarako baimenik eman ezean.
- 10.- Lizartzan Axurdario Harrobiaren Ingurumena Berrezkuratzeko eta Paisaia Integraziorako Aurreproiektuak garatuko duen, amaieran lortuko den eremua egokitzeko Obren Gauzatze-Proiektua bere kontura egitea. Proiektuak Udalarekin adostutako ideiak garatu beharko ditu, eta Udalean aurkeztu beharko da gehienez hiru hilabeteko epean, esleipen-akordioan eska daitezkeen egokitzapenak edo aldaketak jasotzen dituen esleipen-kontratua formalizatzen denetik kontatzen



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

hasita. Era berean, eta proiektua behin betiko onartu aurretik, Udalak bere txostenean egokitzen jotzen dituen aldaketak –halakorik balego– txertatuko ditu. Adierazitako proiektuak betetze, euste, drainatze eta bestelako lanak, betetze-lanaren ustiapenarekin lotutakoak eta landa-parkea egokitzekoak aztertuko ditu. Proiektuaren edukia eta irismena zehazteko, esleipen-prozedura honetan aplikagarriak diren baldintzen agirietako zehaztapenak oinarritzat hartuko dira, bai eta aplikagarria den araudi teknikoak ezarritako eta aztertutako obrak modu egokian definitu eta gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ere.

- 11.- Legeari jarraiki, betetze-lanak eta horien ustiapena egiteko beharrezkoak diren baimenak kudeatzea udalez gaindiko instantzietan (Eusko Jaurlaritza).
- 12.- Obra gauzatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko diren langile teknikoki gaituak izendatzea eta udalari horien inguruan jakinaraztea, lanak hasi aurretik.
- 13.- Udalez gaindiko instantziek (Eusko Jaurlaritza) ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzea –halakorik balego–.
- 14.- Udalak onartu beharreko proiektuan aurreikusitako obrak gauzatzeko Udalak izendatutako zuzendaritza fakultatiboaren aginduak betez.
- 15.- Gauzatze-proiektuan aurreikusitako obrak kontratuan zehaztutako epeetan hasi eta bukatzea.
- 16.- Obran zein instalazioetan beharrezko konponketa guztiak egitea, irismena eta kausa gorabehera.
- 17.- Kontzeptu hauek ordaintzea:
 - Betetze-lana ustiatzeko emakidari dagokion kanona, konpentsazio ekonomikoa aukeratu izan bada.
 - Kontrata prestatzearen eta formalizatzearen ondoriozko gastuak eta zergak (besteak beste, obraren behin betiko bermea).
 - Segurtasun eta osasunaren arteko koordinazioaren gastuak, obrak egin bitartean. Lizartzako Udalak izendatuko duen enpresa homologatu batek egingo du lan hori, eta gehienez 5.000 (bost mila) euro ordainduko ditu urtean.
 - Obrak eta instalazioak zaintzea.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Ura eta energia elektrikoa hornitzea, zaborra eta hondakin-urak hustea, aurreproiektuan ezarritakoari jarraituz.
- Administrariak eta mantentze-lanetarako langileak.
- 18.- Betetze-lanaren ustiapena baldintzen agiri honetan, aplikagarria den ingurumen-araudian eta emakidaren edukia osatzen duten gainerako dokumentuetan aurreikusitako moduan egitea.
- 19.- Administrazio-kontratazioaren araudi erregulatzailan eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako emakida honetan jatorria duten betebeharrak betetzea.

9. art.- Udalaren ahalak

Udalak honako ahal hauek izango ditu:

- 1.- Kontratua interpretatzeko eskubidea, eta kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak ebaztekoa.
- 2.- Emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzea, emakidaren xede den dokumentazioa ikuskatzea eta prestazioa mantentzeko edo berrezartzeko aginduak ematea.
- 3.- Egindako arau-hausteengatik dagozkion zuzenketak ezartzea emakidadunari.
- 4.- Emakida bahitzea.
- 5.- Zerbitzua bertan behera uztea.
- 6.- Ez-ordaindutako kanonak ordaintzea eskatzea, premiamendu-bidez.

10. art.- Betetze-lana kudeatzea eta ustiatzea

Ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko emakidaren esleipendunak betetze-lanetan erabiliko diren materialak onartzeko, hautatzeko eta kontrolatzeko baldintzei men egingo die. Horiez gain, Udalak onartu beharreko proiektuaren baldintzen agiri teknikoan eta emakida esleitzeko ebazpenean ezarritako lan horiek gauzatzeko baldintzak ere bete beharko ditu.

11. art.- Azpikontratazioa



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA


- 1.- Kontratuaren xede diren obrak azpikontratatu ahal izango dira, Udalari alde aurretik idatziz jakinarazten bazaio eta hitzartuko den obra zehazten bada.
- 2.- Betetze-lanaren ustiapena zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratu gisa hartuko da, eta prestazio gehigarrietarako baino ezingo da azpikontrataziorik egin.

12. art.- Bermealdia

- 1.- Kontratista betetzeko eta parkea egokitzeko lanetan antzeman daitezkeen efektuen erantzule izango da, obrak hasten direnetik bermealdia amaitzen den arte.
- 2.- Obren bermealdiak urtebete iraungo du, udalak obra jaso eta harpen-akta egiten duen egunetik kontatzen hasita.
- 3.- Kontratatista obren eta kalte-galeren gaineko erantzukizuna hartuko du hamabost urtez, obraren harpen-akta egiten den egunetik kontatzen hasita, baldin eta horien jatorria kontratua ez betetzeagatik eraikinak ezkutuan dituen akatsak badira.

13. art.- Arau-haustek eta zehapenak

- 1.- Arau-haustek: obrak gauzatzean eta zerbitzua ustiatzean emakidadunak egiten dituen arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izango dira:
 - a.- Arau-hauste oso larriak:
 - Onartutako proiektua modu nabarmenean aldatzea eragiten duten obra-aldaketak.
 - Obrak eskatutako segurtasun-neurriei jarraiki ez gauzatzea.
 - Obrak etengabe gelditzea, ezinbesteko kasuetan salbu.
 - Eraikuntzan ezkutuko akatsak egotea, emakidadunak doloz ez betetzeagatik.
 - Baldintzen agiri honetan eskatutako aseguru-polizak ez izenpetzea, edo hemen eskatutako baldintzak ez beste batzuei jarraiki izenpetzea.
 - Aseguru-polizen agiriak ez ordaintzea epemuga iristean.
 - Zerbitzuaren prestazioa ez hastea edo geldiaraztea, ezinbesteko kasuak direnean salbu.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Betetze-zerbitzua akatsekin edo modu irregularrean eskaintzea.
- Betetze-zerbitzua lagatzea, azpierrentan ematea edo eskualdatzea udalak alde zurretik baimenik eman gabe.
- Obran zein instalazioetan beharrezko konponketa guztiak ez egitea, irismena eta kausa gorabehera.
- Baldintzen agiri honetako emakidarentzat ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.
- Obren zuzendaritza fakultatiboak obrak gauzatzeko xedatutako aginduak eta jarraibideak ez betetzea.
- Urtebetean hiru arau-hauste larri egitea.

b.- Arau-hauste larriak:

- Lan, segurtasun, higiene eta gizarte-segurantzako betebeharrak ez betetzea obra edo zerbitzuko langileekiko.
- Udalaren eskakizunei eta ebazpenei men ez egitea.
- Obrak egingo diren eremua baimendutakoa ez beste helburu baterako erabiltzea.
- Urtean hiru arau-hauste arin egitea.

c.- Arau-hauste arinak:

- Betebeharrak betetzean, arrazoirik gabe arduragabekeriaz edo zabarkeriaz jokatzeko.
- Betetzeari ez dagozkion instalazioak eta beren sarrerak ondo zainduta eta garbi ez edukitzea, eta beharrezkoak diren poliziak ez egotea.
- Baldintzen agiri honetan zein emakida hau arautzen duten gainerako arauetan erabiltzailearentzat zehaztutako eta aipatu ez diren betebeharrak ez betetzea.

2.- Zehapenak: Arau-hausteen batzordeak Udalak honako zehapen hauek ezartzea eragingo du:



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- a.- Esleipendunak berari dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu, Udalak horiek betetzea eska dezake, edo kontratua suntsiarazi.
- b.- Esleipendunak fidantza eratzeko edo agertzeko betebeharrak betetzen ez baditu, kontratua egiteko betebeharrak betetzen ez baditu edo hura adierazitako baldintzetan formalizatzea galarazten baldin badu, esleipena efekturik gabe gelditu ahalko da, eta ondorioak fidantza konfiskatzeari eta kalte-galeren ordainei buruzko legean aurreikusitakoak izango dira.
- c.- Obren gauzatzea atzeratuz gero, eguneko isunak jarriz zehatuko da, proportzioa kontratu prezioaren 1000 euro bakoitzeko 0.20 eurokoa izango da.
- d.- Arau-hauste arinei ohartarazpen-zehapena ezarriko zaie kasu guztietan; horretaz aparte, 300 eurora arteko isunekin ere zigortu ahal izango dira. Urte batean hainbat ohartarazpen metatuz gero, kontratua suntsiarazi daiteke.
- e.- Arau-hauste larriak isunekin zigortuko dira (301-1.200 eurotik hasi eta behin betiko fidantzaren zenbateko osora artekoak), ekintzok direla-eta harreman juridikoan gerta daitezkeen erantzukizun edo ondorioei kalterik egin gabe.
- f.- Emakidadunak bere oinarrizko betebeharratan arau-hauste larriak egiten baditu, emakida suntsiaraziko da.
- g.- Emakidadunak zerbitzu publikoa ondo ematea arriskuan jartzen duten arau-hauste larriak egiten baditu, Udalak emakida bahitu ahal izango du.
- h.- Arau-hauste oso larriak isunekin zigortuko dira (1201-2400 eurotik hasi eta behin betiko fidantzaren zenbateko osora artekoak), ekintzok direla-eta harreman juridikoan gerta daitezkeen erantzukizun edo ondorioei kalterik egin gabe.
- i.- Arau-hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz errepikatzen badira, kontratua suntsiarazi eta emakidadunaren desgaitasun-adierezpena egingo da.
- j.- Isunak aplikatzeak ez du esan nahi Udalak ez duela aukerarik kontratua ez betetzeagatiko kalte-galeren ordainik jasotzeko.

14. art.- Emakida bahitzea

Kontratazio-organoak, emakidadunari entzunaldia eman ondoren eta SPKLTBren 251. artikuluan aurreikusitako baldintzei jarraiki, emakida bahitzeko erabakia hartu ahal



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

izango du, baldin eta emakidadunak ezin badu, berari ez dagozkion kausengatik, aldi batez obra publikoa ustiatu eta hori dela-eta gizarteari kalte larria eragiten bazaio, edo berari ez dagozkion kausengatik betebeharrak larriki huts egin eta ustiapena arriskuan jartzen badu, edo betebeharrak larriki huts egin eta ustiapena arriskuan jartzen badu. Kontratazio-organoaren erabakia emakidadunari jakinaraziko zaio, eta, emakidadunak, horretarako emandako epearen barruan, okerra zuzentzen ez badu, emakida bahitu egingo da.

15. art.- Emakida iraungitzea

Emakida iraungitzea SPKLTBren 266-272. artikuluetan adierazitako kasuetan eta moduetan egingo da. Erabakia ofiziozko kontratazio-organoak har dezake, edo kontratistari entzunaldia ematea bermatuko duen prozeduraren bidez egin kontratistak hala eskatzen badu, eta SPKLTBren 271. artikuluan aurreikusitako efektuak izango ditu.

16. art.- Parte hartzeko gaitasuna

- 1.- Kontratazio honetan parte hartu ahal izango dute erabateko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek, obrak gauzatzeko behar besteko kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute. Euren helburu edo jarduerak kontratuaren xedearekin harreman zuzena izan beharko du, bakoitzaren estatutuetan edo sortze-arauetan jasotakoaren arabera, eta hala egiaztatu. Azkenik, obra eta lan guztiak egiteko langile eta elementu material nahikoa duen erakunde bat izan beharko dute eta ezingo dira egon SPKLTBren 60. artikulua zehaztutako ezein salbuespen-egoeretan.
- 2.- Bere izenean parte hartu ahalko dute, edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako beste pertsona batek ordezkatuta.
- 3.- Ahalordeak eta nortasuna egiaztatzen duten dokumentuak proposamenarekin batera aurkeztuko dira, eta Udaleko idazkariak askietsiko ditu proposamena aurkeztu baino gutxienez 24 ordu lehenago.
- 4.- Kontratua pertsona edo entitate bakarrarekin gauzatu da. Hala ere, bi pertsona edo gehiagorekin egin ahal izango da Udalarekiko betebeharrak solidarioa badute, edo aldi baterako elkartutako enpresak badira. Bi kasuetan, eskubideak banaezinak izango dira, eta kontratuak eskritura publiko gisa formalizatzeko eta ordezkari edo ahaldun bat izendatzeko epea hamabost egunekoa izango da, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

5.- Kontratu honetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da antzeko lanak egin izana, bai talde teknikoari bai obra gauzatzeaz arduratzen den taldeari dagokienez.

17. art.- Lizitazio-espeditentea

1.- Espeditentea

Lizitazio honen espeditentea, baldintza juridiko eta ekonomikoen agiriak eta oinarri teknikoen agiriak osatzen dutena. Hura Lizartzako Udalak aztertu ahal izango du, 08:00etatik 14:00etara bitartean.

2.- Gutun-azal itxiak aurkeztea:

Proposamenak Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 8:00etatik 14:00etara hamabost eguneko epean, prozedura negoziatuan parte hartzeko gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Proposamenak postaz bidali ahalko dira, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitakoa betez. Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Proposamenak hiru gutun-azal itxi eta zenbakitutan aurkeztuko dira, eta honako dokumentu hauek izango dituzte:

«A» GUTUN-AZALA. DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

- 1.- Proposamena aurkezten duen pertsonaren NANA, bai bere izenean jardun duenean bai ordezkari gisa aritzen denean, hau da, lizitatuzailea bere izenean ez aritzen ez bada edo komunitate, gizarte edo pertsona juridiko bat baldin bada; ahalorde askietsi horrek Merkataritzako Erregistroan behar bezala jasota egon beharko du.
- 2.- Merkataritzako Erregistroan behar bezala izena emanda dagoen sozietate edo komunitatearen sortze- edo aldatze-eskrituren, estatutuen edo erregelamenduaren izapidetutako fotokopiak.
- 3.- SPKLTBan zehaztutako kontratazio-debekurik ez izatearen lizitatuzailearen adierazpena; zehazki, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 4.- Zerga-betekizunak (ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea, langileak alta eman izanaren adierazpena, Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea) egunean edukitzearen administrazio-ziurtagiria edo berriazko erantzukizunpeko adierazpena. Esleipendunak behin betiko bermearekin batera aurkeztu beharko du ziurtagiria.
- 5.- Epaitegi eta auzitegi motaren jurisdikzioari men egingo diotelako atzerriko enpresen adierazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak arautzen duen Kontratisten Erregistroan izena emanda dauden lizitatzailleak erregistroak jaulkitako izen-ematearen ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute gaitasunari eta kaudimenari buruzko dokumentuen orde, baldin eta hura indarrean badago.

Era berean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratuen Erregistroak baldintza beretan jaulkitako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da aipatu dokumentazioaren orde.

«B» GUTUN AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Lizitatzailleak sinatutako proposamen ekonomikoa, eredu honi jarraiki:

..... jaunak/andreak, helbidea dudanak, telefonoa, fax zenbakia eta NAN zenbakia ditudanak, erabateko gaitasun juridikoa eta jardutekoa dudala, nire izenean arituz (edo ordezkatuta), Lizartzan Axurdario Harrobiaren Ingurumena berreskuratzerako eta Paisaia Integraziorako lanen esleipena arautzen duen Udal honek onartutako baldintza administratibo eta ekonomikoen agiriaren berri dut. Agiriak honako hauek arautuko ditu: Lizartzako Axurdario mendiko harrobi zaharraren ontzia lurrez betetzeko lanaren ustiapenaren esleipena eta mendi horren oinean GI-2145 foru-errepidearen alboan kokatutako harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratze obrak gauzatzeko kontratazioa. Obra horiek betetze-lanak eta egungo instalazioak modu hautakorrean desegiteko, kentzeko eta eraisteko lanak barne hartuko dituzte. Hala, aipatu jarduketa eta obra guztiak egiteko konpromisoa hartzen dut, eta guztira €-ko inbertsio ekonomikoa egingo dut horretarako. Zenbatekoa dokumentazio teknikoan atxikitako autofinantzaketa-programan zehaztutako obrak gauzatzeko aurrekontuari (BEZa barne) dagokio.



**LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA**

Era berean, lan- eta zerga-arloan araututakoa betetzeko konpromisoa hartzen dut.

.....(e)n 2014koren(e)(a)n
Sinadura

«C» GUTUN AZALA. MEMORIA TEKNIKOA

Lizartzako Axurdario harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketei buruzko proposamenak irudikatzeko zehazten den dokumentazio teknikoak, lehiaketa hau arautzen duen oinarri teknikoaren agiriaren 3. eta 4. atalek ezarritakoari jarraiki.

Gutun-azal guztietan honako inskripzio hau idatzita egon beharko da:

«Lizartzako Axurdario Harrobiaren Ingurumena berrezkuratzerako eta paisaia integraziorako lanen kontratazioan parte hartzeko proposamena». Aurkezten duenak sinatuko du, eta entregatu ostean agiri edo ziurtagiri bat jaulki ahal izango da.

Proposamenak postaz bidali ahal izango dira, indarreko araudian aurreikusitakoa betez.

18. art.- Proposamenak irekitzea

Aldez aurretik, kontratazio-mahaiak garaiz eta modu egokian aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu. Aurkeztutako dokumentazioan akats materialik behatzen badu, berau konpontzeko hiru egun eman ahalko dizkio lizitatzailari. Gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldi publikoa udaletxeko bulegoetan izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunean, arratsaldeko ordu batetan. Larunbata bada, hurrengo egun baliodunean egingo da ekitaldia.

Mahaiko buruak proposamenak irakurriko ditu, eta ondoren, baldintzen agiriak eskatutako dokumentazio guztia atxikita ez dutenak baztertu ahal izango ditu, bai eta ereduari jarraiki egin ez direnak ere, lizitatzaille, prezio, epe eta abarren inguruko zentzuzko zalantzak eragin ahal dituztenean, betiere.

Kontratazio honetarako espedientea Udaleko zerbitzu teknikoek aztertuko dute, eskaintako proposamenak balioztatzeko helburuarekin. Hona hemen irizpideak eta beren puntuazioa, garrantzi handienekotik txikienera zerrendatuta.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 1.-Proiektua gauzatzeko egingo den inbertsioaren balio ekonomikoa, ontzia lurrez betetzeko lana ustiatzeko emakidaren kontraprestazio edo kanon gisa40 puntu.
- 2.- Amaierako eremua egokitzeko obrak gauzatzeko faseen epeak eta programa, betetze-lanekin koordinatuta10 puntu.
- 3.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko proiektua aurrera eramango duen taldearen baliabide teknikoak eta giza baliabideak20 puntu.
- 4.- Axurdario mendiko harrobiaren eremua ingurumenaren eta paisaiaren aldetik berreskuratzeko jarduketak aurrera eramateko eraikuntza-enpresak dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak20 puntu.
- 5.- Hobekuntzak... 10 puntu.

19.- Esleitzea eta formalizatzea

Kontratazio-organoak, aurretik dagozkion txosten teknikoak egin ostean, kontratua esleituko du eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez bi (2) hilabeteko epean, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 161.2 artikulua xedatu bezala. Esleipena epe horretan ematen ez bada, enpresariak bere proposamena kentzeko eskubidea izango du, bai eta, hala badagokio, jarritako bermea itzultzekoa ere.

Kontratuaren esleipena sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 151. artikuluan ezarritako izapideei jarraiki egingo da. Era horretan, kontratazio-organoak onuragarrietik hasita sailkatuko ditu eskaintzak, baldintzen agirietan ezarritako irizpideak oinarri hartuta. Ondoren, horietan onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari hurrengo dokumentu hauek aurkezteko eskatuko zaio, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar (10) egun balioduneko epean: zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa (edo, bestela, ziurtagiri hori zuzenean lortzeko baimena emango dio kontratazio-organoari), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 64.2 artikuluari jarraiki kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko dituen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentua, eta dagokion behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea honela



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

egiaztatuko da:


- Lizitatzailleak helbide fiskala duen Zerga Administrazioak eta zergak ordaintzea eskatzen duten jarduerak egiten edo egin diren Zerga Administrazioek jaulkitako ziurtagiria. Horietan adieraziko da lizitatzaillea bere zerga-betebeharretan egunean dagoela.
- Merkataritzakoak ez diren sozietateen edo nortasun juridikorik ez duten entitateen kasuan, ziurtagiria(k) sozietate, entitate edo establezimenduko titularrari edo titularrei buruzkoa(k) izango d(ir)a.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria, edo jarduera hasi berria bada, zerga horren matrikularen alta kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Halaber, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egiaztatzea, entitate horrekiko kuoten ordainketan lizitatzaillea egunean dagoela ziurtatuko duena.

Baldin eta eskatutakoa ez bada behar bezala betetzen adierazitako epean, ulertuko da lizitatzailleak erretiratu egin duela bere eskaintza, eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaizkio hurrengo lizitatzailleari, eskaintzak sailkatuta gelditu diren ordenaren arabera.

Kontratazio-organoak kontratuaren esleipena erabakiko du eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaillearen **dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egun balioduneko epean, eta kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta ezarriko ditu.**

Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du ebazpen arrazoituaren bidez; ebazpen horretan kanporatutako lizitatzailleek edo baztertutako hautagaiek **esleipen-erabakiaren aurka errekurtsioa aurkezteko behar duten informazio guztia adierazi beharko da.** Erabakia, halaber, hautagai edo lizitatzaille guztiei jakinaraziko zaie, eta LIZARTZAKO Udaleko kontratatzailearen profilean nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. **Esleipen-akordioak honako alderdi hauek azalduko ditu:**

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza atzera botatzeko arrazoiak azalpen laburra.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- Esleipen-prozesutik kanporatu diren lizitatzaleei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak azalpena; laburra, hori ere.
- Edozein kasutan, esleipendunaren izena eta eskaintza onartu zaien gainerako lizitatzaleek aurkeztutakoan aurrean esleipendunarena lehenesteko erabakigarriak izan diren haren eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak.

Jakinarazpena posta elektronikoz egin ahal izango da, proposamenak aurkeztean lizitatzaleek edo hautagaiek zehaztutako helbidera mezu bat bidalita. Aurkeztutako eskaintzaren batek baldintzen agirietan zehaztutako baldintza guztiak betetzen baditu, esleipena erabaki beharko da; ezingo da, inola ere, esleitu gabe utzi.

Hala ere, sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 155. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esleipena erabaki aurretik entitate kontratatzaileak kontratua bertan behera utz dezake interes publikoko arrazoiak direla medio, edo izapidetutako prozeduran atzera egin, horretan zuzendu ezin daitezkeen akatsak baldin badaude. Bi kasuetan, lizitazioan parte hartzeak benetan eragindako gastuengatik kalte-ordaina eman beharko zaie lizitatzaleei.

Edozein kasutan ere, kontratua administrazio-dokumentu gisa formalizatuko da, eta agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Kontratatzaileak hala eskatuz gero, eskritura publiko gisa formalizatuko da kontratua; eta berak ordainduko ditu horren kostuak. Era berean, kontratazio-organoari horren kopia bat eman beharko dio.

Kontratuaz gain, kontratatzaileak administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria sinatu beharko ditu, bai eta, hala badagokio, proiektu teknikoa ere, bertan atxikita egongo ez balira.

Esleipendunari egotzi dakizkiokeen kausak direla-eta kontratua ez bada formalizatzen, Udalak hura iraungitzea erabaki ahal izango du, aldez aurretik dagokion espedientea hasita. Espedientean interesdunari entzunaldia eman beharko zaio, arrazoiak behin betiko bermea eratu ez izana bada salbu; kasu horretan, bestelako izapiderik gabe suntsiaraziko da, kalte-galeren ordaina eta guzti.

20. art.- Jurisdikzio eskuduna



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Prerrogatiba hauek gauzatu bitartean Udalak hartu ditzakeen erabakiak betearazleak dira; horien aurka, interesdunek administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo ahal izango dute.

Guzti hori kontutan hartuaz, aho batez, erabaki da:

- 1.- Lizartzako Axurdario mendiaren oinetan dagoen GI-2135 Foru Errepidearen alboko Harrobiaren ontzia lurrez betetzeko Emakidaren Kontratatorako Lehiaketako Baldintza Ekonomiko-Administratiboen pleguari hasierako onarpena ematea.
- 2.- Baldintza Pleguak zortzi egun naturaletan jendearen informazioarako agerian jarrita edukitzea, interesatuek hauek azertu eta egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.
- 3.- Informazio publikoko epealdian alegaziorik aurkezten ez bada, baldintza pleguak behin betiko onartutzat jotzea.
- 4.- Aldi berean, lizitazioa iragartzea, hau atzeratu egingo delarik baldin eta Baldintza Pleguaren aurka alegazioak aurkezten badira.

**ZORTZIGARRENA.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA.
BEHIN BETIKO ONARPENA**

V. Plangintzaldiari dagokion LIZARTZAKo Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana (2013-2017) behin behinekoz onartu zen, bi mila eta hamahiruko abenduaren hemezortziko Alkatetza ebazpena bitartez.

Ondoren, erabilera plana, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan euskara normalizatzeko zuzendaritzara bidali zen, aldeko txostena eman zezan.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Euskara Normalizatzeko Zuzendaritzak, aldeko txostena luzatu du, 2014ko urtarrilaren 8an.

Guzti hori kontutan hartuaz, V. Plangintzaldiari dagokion LIZARTZAKo Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana (2013-2017) behin betikoz onartzea, aho batez erabaki da.

**BEDERATZIGARRENA.- BIDEGI. HITZARMENA SINATZEKO ALKATEARI
AHALMENAK EMATEA**



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Hitzarmen honen xedea da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean aplikatzen diren deskontuen eskatzaileak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra egiaztatzeko, BIDEGIk, izaera pertsonala duen datu hori tratatzeko baldintzak eta izan behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea.

Hitzarmen honekin, BIDEGIren xedea, erabiltzaileen erroldaren datuen egiaztapena egitera soilik mugatuko da.

Horrela, aurrekarietan deskribatu den bezala, deskontuaren eskatzaileak Gipuzkoako herriren batean erroldatuta daudela ziurtatuko da.

Metodologiari dagokionez, soilik, prozesu informatikoak erabiliko dira hitzarmenaren xedea betetzeko, hala nola, SFTP, FTPS edo SSC. Dena den, erabiltzen diren lagapen sistemek datu pertsonalak babesteko araudiak galdatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun bermeak bete beharko dituzte.

Beraz, Idazkaritzak 2014ko otsailaren 14ean egindako txostena ikusi da, udal honek eta BIDEGIk, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean aplikatzen diren deskontuen eskatzaileak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra egiaztatzeko, Bidegik izaera pertsonala duen datu hori tratatzeko baldintzak eta izan behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea beharrezkotzat hartzen da udal honek eta Bidegik lankidetzarako administrazio-hitzarmena onartzeko aplika daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2014ko otsailaren 21eko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako Udalak eta BIDEGIk, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, AP-8 eta AP-1 autobideetako kanonaren gainean aplikatzen diren deskontuen eskatzaileak Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra egiaztatzeko, Bidegik izaera pertsonala duen datu hori tratatzeko baldintzak eta izan behar duen konfidentzialtasun esparrua ezartzea beharrezkotzat hartzen da udal honek eta Bidegik



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Alkateak, Begoña Balerdi Urdampilleta, udalbatza honetako Udalburua den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HAMARGARRENA.- ITTEN. HITZARMENA SINATZEKO ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

Hitzarmen honen objektua, Lizartzako Udalaren eta Itten-en artean lankidetzako marko bat ezartzea da, finantziario nahikoa dituzten udal proiektuak burutzeko.

Itten-en kolaborazioa laguntza tekniko, juridiko eta administratibora mugatuko da Lizartzako Udalak ezarritako irizpideak errespetatuz.

Beraz, Idazkaritzak 2014ko otsailaren 14an egindako txostena ikusi da, udal honek eta Itten-ek, finantziario nahikoa dituzten udal proiektuak burutzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmena onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2014ko martxoaren 5eko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Lizartzako udal honek eta Itten-ek, finantziario nahikoa dituzten udal proiektuak burutzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

BIGARRENA. Alkateak, Begoña Balerdi Urdampilleta, udalbatza honetako Udalburua den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HAMAIKAGARRENA.- MOZIOAK

EHBilduren martxoaren 8ko adierazpena

EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA

Martxoaren 8a hurbiltzen ari zaigu urtero bezala, Emakumeon Eguna. Urteetako borrokak gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina, batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.

Krisiaren itzalpean harro dabilzkigu kapitala eta patriarkatua, lotsarik gabe, mozorroa kenduta. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara, atzeraka goaz. Inboluzio une batean gaude. Historia lineala ez denez, ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da ezinbestekoa, aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.

Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian bandera espainola ezarrita (Estatuaren lurralde bihurtuta) eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexualaren hautua egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta: gaiztoak, gaixoak, sorginak eta eroak omen.

Lan-merkatuan gero eta biluziago gaude emakumeok. Botere ekonomikoaren mesedetan arautzen ari da lan-mundua, lanerako gorputza, burua eta eskuak besterik ez ditugunok babesik gabe utziz. Haurdun dauden emakumeak kaleratzeko aukera legeztatu da, lan-baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeak nagusi diren hirugarren sektorean bereziki, eta sektore feminizatueta behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta prekarietatea dira nagusi. Horrekin batera, lan-merkatutik kanpo uzten ditugun etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute. Ez hori bakarrik; erakunde publikoak, pertsonen zaintza luxua dela baloratuta, horretarako dauden zerbitzuak eta laguntzak murrizten ari dira eta, ordainetan, emakumeon zaintzaren motxila kargatzen. Biluzik eta gero eta motxila handiagoarekin gabiltza.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Biluzik gabiltzan arren, gure gorputza ere ez digute guretzat utzi nahi. Gure gorputza gurea dela ukatu nahi digute. Gure umetokia Estatu-arazoa dela diote baina gaude beraientzat arazoa, azken finean, emakumeak garela. Abortatzeko eskubidea ukatzeko Espainiako Gobernuak aurkeztu duen kontrarreformarekin, duela 40 urte oihukatutako aldarriak berriz etorri zaizkigu umetokietatik eztarrietara. Posible da lan-merkatuak ume gehiago nahi izatea langabezia-poltsak handitzeko, langabeziaren mehatxupearan langileak otzantzeko, beldurra areagotzeko. Baina, batez ere, motibazio ideologiko ultrari erantzuten dio; emakumeok ama-emazte izan behar dugun ideologiari, hain zuzen.

Abortuaren kontrarreformarekin batera, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago datoz, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzeko neurriak dira. Ugalketa lagundurako eskubidea bikote heterosexualentzat soilik, haurdun geratzen den emakume oro haurra izatera behartu, norberaren gorputza eta desioak ezagutu eta garatzeko hezkuntza afektibo-sexuala murriztu edo LOMCErekin guztiz ezabatu, elizgizon esanguratsuen ahotik sexu bereko pertsonen arteko harremanak gaixotasun gisa aurkeztu nahi dizkigute, eta indarkeria sexistaren dimentsioa ezkutatu, garrantzia kenduz, datuak makilatuz (indarkeria sexista gisa kontabilizatuko direlako soilik eraildako emakumeak eta 24 orduko ospitaleratutakoak) eta batzuetan justifikatuz. Erakunde publikoek eta hedabideek horretan duten ardura ez da txikia.

Emakume eta gizon askeak, buru- eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua ondo dakitenez, LOMCErekin hezkidetzaren bidean egindako lana ezabatu nahi du Espainiako Gobernuak. Berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egindako lana alde batera utzi eta erlijio katolikoa jarri nahi du erdigunean. Elizak eta Estatuak eskua emanda sartu nahi dute eskoletan, haurren gogoak kolonizatzeke.

Hedabideetan ere atzerakada garrantzitsua atzematen dugu eta bereziki larria iruditzen zaigu bertako hedabide publikoetan gertatzen ari dena. Aktualitateko arazoengatik eztabaida eta tertuliatan emakumeon presentzia anekdotikoa da. Ez dugu ahotsik. Ikusezinak gara. Horretaz gain, hedabideetako edukiek eta publizitateak estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Egoeraren irakurketak alarma guztiak piztera garamatza. Feministok urteetan aldarrikatutako eta borrokatutako helmuga gero eta urrunago dago eta inboluzio lazarria sufritzen ari gara. Emakumeok subjektu politiko gisa, eskubide osoko herritar gisa onartzetik gero eta urrunago gaude. Egungo krisia emakumeon askatasunen eta berdintasunaren krisia ere bada. Ez orain arte helburuok lortu genituelako baina bai



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

atzerapauso nabarmenak ematen ari garelako. Ez halabeharrez, ordea; botere politikoek eta ekonomikoek norabide horretan eraman nahi gaituztelako baizik. Emakumeek berriro ere sistema heretropatriarkalaren kaiolara lotu nahi gaituzte.

Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Betaurreko eta lupa moreak jantzi, elkarri eskua eman eta atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egiteko prestatu behar dugu. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Jostun onen moduan, jos ditzagun emakumeon arteko sare sendoak. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru guztietan, esparru sozio-ekonomikoan, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezkerretik eraikitzeko.

Gaur, 2014ko martxoaren 8an, EHBilduk Euskal Herri feministaren helburua bere egin eta borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du. Gure zeregina da mugimendu feministarekin batera orain arteko borroken lekukoa hartu eta borroka horiei eustea, gure zeregina da erdi lo genituen borrokak berpiztea, lortutzat genituen eskubideak uste baino errazago gal ditzakegulako, eta gure zeregina da mugimendu feministak irekitzen duen bidea jarraitzea, pausoz pauso, orpoz orpo.

Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean. Jakitun gara jendartea eraldatzeak gure buruak ere eraldatzea esan nahi duela eta, jakitun gara, barne-mailan gauza asko ditugula oraindik lantzeko. Ez gara jendartetik isolatutako erakunde bat eta guk ere ikasi eta landu beharreko alderdi asko ditugu oraindik. Bada, kanpora begira egingo dugun lanaz gain, etxe barruan ere eraldaketa feministaren bidean lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.

HAMABIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia